




Izenpe Kita


Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-
eskuliburua



	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Aurkibidea

Sarrera	3
Norentzat da agiri hau?	3
Hasi aurretik	3
Instalatzea	4
Instalazio aurreratua (Citrix ingurunea)	7
Aintzat hartu gabeko instalazioa (erabiltzaile aurreratuentzat)	7
Arazoak instalazioan	8
Instalazioaren amaiera	8
Izenpe Kita erabiltzen hasi aurretik	9
Aplikaziorako sarbidea	9
Funtzionaltasunak	10
Funtzioen taula	10
Ziurtagirien alerta	13
Maiz egiten diren galderak	14
Glosarioa	17

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskiliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Sarrera

Eskuliburu hau gida baliagarria izango da Izenpe Kitaren instalazio-prozesua arrakastaz gauzatzeko garaian –IZENPEren txartel kriptografikoak (eta USB cryptoKEY tokenak ekartzen dituenak ere) erabiltzeko kita da–, baita kudeaketa-aplikazioan sartzeko eta erabiltzeko prozedura arrakastaz gauzatzeko garaian ere. Izenpe Kitak osagai hauek ditu:

- **Izenpe Middleware:** sistema eragilearen edozein aplikaziori adierazitako txartel kriptografikoekin lan egiteko aukera ematen dioten liburutegiak
- **Izenpe Middleware, Citrix sistemarako:** edozein Citrix aplikaziori adierazitako txartel kriptografiko horiekin lan egiteko aukera ematen dion liburutegia (**Citrix inguruneetan lan egiten denean soilik instalatu behar da**).
- **Izenpe Card Manager:** txartela kudeatzeko aplikazioa, hainbat eragiketa egiteko aukera ematen duena: PINa edo PUKa aldatzea, PINa desblokeatzea, txartelari buruzko informazioa lortzea...
- **Izenpe CertExpire:** ziurtagirien iraungipenaz ohartarazteko aplikazioa, sistema eragileak onartzen dituen txartel adimendunen ziurtagiriak laster iraungiko direla edo jada iraungi direla ohartarazten duena.
- **Token cryptoKEY kontrolagailuak:** sistema eragileari USB cryptoKEY tokenarekin zuzen elkarreragiteko aukera ematen dioten liburutegiak (**txartela USB cryptoKEY token batean txertatuta datorrenean besterik ez**)

Eskuliburu honek modu errazean gidatuko zaitu Izenpe Kita instalatzeko eta erabiltzeko prozesuan.


Norentzat da agiri hau?

- *Azken erabiltzaileentzat*, IZENPEren txipa duen txartela erabiliko dutenentzat.

Hasi aurretik

Ziurtatu hauek daukazula:

- Txartel-irakurgailu estandarra, PC/SC bateragarria, behar bezala konektatua, instalatua eta konfiguratua. Jarraitu irakurgailuaren fabrikatzaileak emandako argibideei, behar bezala instalatuta dagoela eta ongi funtzionatzen duela egiaztatzeko (**token cryptoKEY bat baldin baduzu ez da beharrezkoa**).
- Izenpe Kitaren azken bertsioa. IZENPEren webgunea bisitatzea gomendatzen dizugu, bertsio eguneratua daukazula egiaztatzeko.
- Instalazioa egin ahal izateko, ezinbestekoa da administratzailearen baimenak izatea. Baimenik ezean instalazioa ukatu egingo da.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Bit4id-en USB cryptoKEY token bat baldin baduzu, ez konektatu ordenagailuarekin instalazioa amaitu arte.

Instalatzea

Aplikazioa eskuragarri egongo da IZENPERen webgunearen bitartez, “Ziurtagiria kudeatzea” > ‘Ziurtagiria abian jartzea’ atalaren bitartez:




Deskarga ezazu Windowsi dagokion instalatzailea, eta exekuta ezazu zure tresnerian. Eskatzen bazaizu, baimen ezazu aplikazioa exekutatzea.

Oharra: aplikazioa exekutatzea eskatzen badizu, joan zaitetz deskargen karpetara, bila ezazu Kit_Izenpe_User ikonoa, eta bertatik exekuta ezazu.

Hizkuntza hautatzea

Aplikazioa exekutatu ostean, aplikazioa zein hizkuntzatan instalatuko den galdetuko dio erabiltzaileari. Eskura dauden hizkuntzak:

- Espainiera.
- Euskara.
- Ingelesa.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	



Hauta ezazu hizkuntza eta sakatu OK. Prozesuan gidatuko zaituen instalazio-morroia hasieratuko da. **Instalazio-prozesuarekin jarraitu aurretik, beste edozein aplikazio ixtea gomendatzen da.**


Instalazio-morroia

Ongi etorria Izenpe Kitaren instalazio-morroira. Saka ezazu *Hurrengo* aurrera egiteko.



Berrikus itzazu lizentzia-akordioaren nondik-norakoak, eta egin ezazu klik *Onartzen dut* botoian aurrera egiteko.



	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	


Ondoren, instalatu beharreko osagai guztien zerrenda hautagarria duen leihoa zabalduko zaizu. Nahitaezko osagaien laukiak desgaituta agertuko dira. Manten ezazu konfigurazio lehenetsia eta sakatu *Instalatu*.



KONTUZ: Ez ezazu lehentsitako konfigurazioa aldatu IZENPEk aurkako adierazten ez badizu, txartel adimendunarekin lan egitean errore teknikoak sor daitezke eta.

Saka ezazu *Amaitu* morroia ixteko.



	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07
	Produktua: Izenpe Kita	4.0.1.0 bertsioa

Instalazio aurreratua (Citrix ingurunea)

Citrix sistemetarako Izenpe kita instalatu nahi izanez gero, instalazioaren morroian agertzen den osagaien zerrendan *Citrix egokitzapena* osagaia aukeratu beharko da.



Aintzat hartu gabeko instalazioa (erabiltzaile aurreratuentzat)

KONTUZ: prozesu hau IZENPEk esplizituki jakinarazten duen kasu zehatzetarako da. Erabiltzaile gehienek ez dute aintzat hartu gabeko instalazio bat egin behar.


Aintzat hartu gabeko instalazio bat egiteko, nahiko da instalatzailea sartzea komando-koadroan, “/S” parametro gisa pasata.

KONTUZ: aintzat hartu gabeko instalazio baten elkarreragin-mugen ondorioz, aurreko bertsioak edo bertsio bateraezinak (SafeSign) ezabatu beharko dira instalazioari ekin aurretik. Era berean, instalazioa amaitutakoan, makina berrabiarazi beharko da.

Citrix inguruneetan aintzat hartu gabeko instalazio baterako, “/S” parametroaz gain, “/C” parametroa ere pasa behar da. Berdio dio parametroen ordenak (“/S/C” edo “/C/S”).

/S: aintzat hartu gabeko instalazioa adierazten du.

/C: Citrix inguruneetarako egokitutako instalazioa adierazten du.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskiliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Aintzat hartu gabeko instalazioen adibideak

- Aintzat hartu gabeko instalazioa

Exekutagarriaren ibilbidea> **Kit_Izenpe_Admin_X.X.X.X /S**

Exekutagarriaren ibilbidea> **Kit_Izenpe_User_X.X.X.X /S**


- Citrix inguruneetarako aintzat hartu gabeko instalazioa

Exekutagarriaren ibilbidea> **Kit_Izenpe_User_X.X.X.X /S /C**

Exekutagarriaren ibilbidea> **Kit_Izenpe_Admin_X.X.X.X /C /S**

Arazoak instalazioan

Gerta daiteke txartela kudeatzeko aplikazioaren (Izenpe Card Manager) aurreko bertsioak instalatuta izatea zure tresnerian. Kasu horretan, aurreko bertsioak ezabatu beharko dira instalatzailea exekutatu aurretik. Ezaba itzazu bertsio horiek, eta exekuta ezazu instalatzaile berria.




Aurreko bertsioak Windows XPn ezabatzeko, joan Hasiera > Programak > Izenpe > Kit Izenpe x.x.x.x desinstalatu (x.x.x.x instalatutako bertsioaren zenbakia izango da).

Windows 8 baldin baduzu, aurreko bertsioak ezabatzeko, joan Hasiera pantailara eta egin ezazu klik eskuineko botoiarekin. “Aplikazio guztiak” izena duen ikonoa agertuko zaizu. Saka ezazu eta bilatu IZENPEren aplikazioa > Kit Izenpe x.x.x.x desinstalatu (x.x.x.x instalatutako bertsioaren zenbakia izango da).

Instalazioaren amaiera

Instalazio-prozesua amaitu denean, zuzeneko sarbidea sortuko da Izenpe Card Manager (txartel-kudeaketa) aplikazioaren idazmahaian, eta horren bidez edozein motatako eragiketa egin ahal izango du.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskiliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	



Era berean, Txartel Kudeaketa aplikaziora sar daiteke honako bide honetatik:

- Windows XPn, joan zaitez Hasiera > Programak > Izenpe > Txartelaren kudeaketa
- Windows Vistan edo Windows 7an, joan zaitez Hasiera > Programa guztiak > Izenpe > Txartelaren kudeaketa
- Windows 8an, joan zaitez Hasiera > Aplikazio guztiak > Izenpe > Txartelaren kudeaketa



Une honetan Bit4id-ren cryptoKEY tokena ordenagailuan libre duzun USB ataka batean konekta dezakezu. Windowsek automatikoki ezagutuko du. Gailuaren LED berdea finko geratuko da, tokenaren eta ordenagailuaren arteko komunikazioa egokia dela eta denak zuzen funtzionatzen duela adieraziz.

Izenpe Kita erabiltzen hasi aurretik

Izenpe Card Managerrek txartel adimendunen irakurle estandarra eskatzen du, PC/SCrekin bateragarria; hasi aurretik behar bezala konektatuta, instalatuta eta konfiguratuta egon behar du.


Jarraitu irakurgailuaren fabrikatzaileak emandako argibideei, behar bezala instalatuta dagoela eta ongi funtzionatzen duela egiaztatzeko.

Token cryptoKEY bat baldin baduzu, ziurtatu ordenagailuan libre duzun USB ataka batean konektatuta daukazula eta tokenak txartel adimenduna (SIM tamainakoa) daukala barruan.



Aplikaziorako sarbidea

Izenpe Card Manager aplikazioa idazmahatik dago eskuragarri, ikono honetan klik eginez:

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	



Era berean, gogorazi behar da Txartel Kudeaketa aplikaziora sar daitekeela honako bide honetatik:

- Windows XPn, joan zaitez Hasiera > Programak > Izenpe > Txartelaren kudeaketa
- Windows Vistan edo Windows 7an, joan zaitez Hasiera > Programa guztiak > Izenpe > Txartelaren kudeaketa
- Windows 8an, joan zaitez Hasiera > Aplikazio guztiak > Izenpe > Txartelaren kudeaketa

Funtzionaltasunak


Izenpe Card Managerrek (Txartelaren kudeaketa) funtzionaltasun ugari ditu, pantaila nagusitik eskuragarri daudenak:




Funtzioen taula

Ondorengo taulan Izenpe Card Managerren pantaila nagusian adierazitako funtzioak laburtzen dira.

Funtzioa	Deskribapena
PINa aldatu	Txartelaren PINa aldatzeko funtzioa (ikus 2. irudia)
PUKa aldatu	Txartelaren PUKa aldatzeko funtzioa (Ikus 2B irudia)
PINa desblokeatu	Txartelaren PINa bere PUKaren bitartez desblokeatzeko funtzioa (ikus 3. irudia)
Ikusi...	Txartelean dauden ziu-tagirien zerrenda ikusteko funtzioa (ikus 4. irudia)
Honako honi buruz...	Funtzio honek instalatutako bertsioa

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

	erakusten du (ikus 5. irudia)
Hautatu Irakurgailua	Bat baino gehiago badaude, erabili nahi dugun irakurgailua aukeratzeko funtzioa

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

PINa aldatu


Txartelaren PIN zaharra eta PIN berria idatzi. PIN berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean izan behar du.



[2. irudia]

PUKa aldatu


Txartelaren PUK zaharra eta PUK berria idatzi. PUK berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean izan behar du.




[2B. irudia]

PINa desblokeatu

PINa desblokeatzeko txartelaren PUKa idatzi eta PIN berria idatzi. PIN berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean izan behar du.



[3. irudia]

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Ikusi...

Txartelean dauden ziurtagiriak ikusteko, txartelaren PINa idatzi hala eskatzen zaizunean.



[4. irudia]

Honako honi buruz...


Izenpe Kitaren bertsioa erakusten duen leihoa, Erabiltzaileen Arreta Guneak eska diezazuke hori.



[5. irudia]

Ziurtagirien alerta

Txartel adimenduna irakurgailuan sartzen duzunean dagokion ziurtagiria iraungita badago edo iraungitzeaz badago (30 eguneko edo gutxiagoko indarraldia), aplikazioak laster-leiho baten bidez ohartaraziko dizu:

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Ziurtagiri iraungia

9. irudiaren gisako laster-leihoa zabalduko zaizu. Bertan, ziurtagiriari eta ziurtagiria kokatzen den txartel adimendunari dagozkion zenbait balio azalduko zaizkizu. Horrez gain, iraungi denetik pasa diren egunak modu nabarmenean agertuko zaizkizu (*Duela X egun iraungi da*).



[9. irudia]

Iraungitzear dagoen ziurtagiria

10. irudiaren gisako laster-leihoa zabalduko zaizu. Bertan, ziurtagiriari eta ziurtagiria kokatzen den txartel adimendunari dagozkion zenbait balio azalduko zaizkizu. Horrez gain, iraungitzeko falta diren egunak modu nabarmenean agertuko zaizkizu (*X egun barru iraungiko da*).



[10. irudia]


Etorkizunean alertak saihestea

Txartela sartzen den bakoitzean agertuko dira alerta-mezuak. Bi kasuetan, iraungita edo iraungitzear egotearen kasuetan, laster-leihoa azaltzea saihestu ahal izango da. Nahikoa izango da “Ez erakutsi leiho hau berriro ziurtagiri honetarako” laukia hautatzea.

Maiz egiten diren galderak

Zer gerta daiteke Card Managerra erabiltzean “Akatsa C_OpenSession funtzioan, 0x1 errorearen ondoriozkoa” errorearen mezua agertzen bazait?

Kontsultatu IZENPErekin zure txartelaren egoera, eta adieraz diezazkiozu egindako urrats guztiak.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Zer gerta daiteke Card Managerra erabiltzean “Akatsa C_Login funtzioan, 0x5 errorearen ondoriozkoa” errorearen mezua agertzen bazait?

Gerta daiteke zure txarteleko PIN kodea ezegonkor egotea. Saia zaitez aldatzen.

Erroreak jarraitzen badu, kontsulta ezazu IZENPErekin zure txartelaren egoera, eta adieraz diezazkiozu egindako urrats guztiak.

Zer gerta daiteke aplikazio guztiak instalatu ondoren nire cryptoKEY tokena konektatzen badut eta argi berdea pizten ez bada?

Konektatu irakurgailua beste ordenagailu baten USB ataka batean. Funtzionatzen ez badu, probatu beste ordenagailu batean. LED berdea inoiz pizten ez bada, kontsultatu IZENPErekin cryptoKEY tokena aldatzeko.

Nola egiazta dezaket nire cryptoKEY tokenak barruan SIM tamainako txartel adimenduna daramala?

Ireki USB konektorearen beste aldean dagoen mihia eta egiaztatu barruan SIM tamainako txartel adimenduna behar bezala txertatuta duela, beheko argazkiaren arabera.



Zer gerta daiteke txartelaren PINa aldatzen saiatzean, “Akatsa C_SetPIN funtzioan, 0x6 errorearen ondoriozkoa” errorearen mezua agertzen bazait?

Egiaztatu PIN berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean duela.

Konbina ditzaket zenbakiak eta letrak txartelaren PIN zenbakirako?


Bai, ez dago arazorik, betiere PIN berriak 6 eta 8 digitu artean badu.

Zalantzaren bat badut eta nire PIN zenbakia zein den gogoratzen ez badut, zenbat aldiz idatz dezaket PINa? Noiz gera daiteke blokeatuta txartela?

PIN kodea hirutan baino gehiagotan gaizki idazten baduzu, blokeatu egingo da. Jarri harremanetan IZENPErekin desblokeatzeko.

Zenbat aldiz idatz dezaket PUKa PINa desblokeatzen ahalegintzeko? Zer gertatzen da txartela blokeatuta geratzen bada?

PUK kodea hirutan baino gehiagotan gaizki idazten baduzu, blokeatu egingo da. Segurtasunagatik, txartela erabat blokeatzen da. Jarri harremanetan IZENPErekin.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Nola egiaztatu dezaket Izenpe Kitaren azken bertsioak ditudala?

Erraz egiaztatu dezakezu zer bertsio duzun instalatuta. Windows XPn, joan Hasiera > Programak > Izenpe > Kit Izenpe x.x.x.x desinstalatu (x.x.x.x instalatutako bertsioaren zenbakia izango da).


Windows Vistan edo Windows 7an, joan Hasiera > Programa guztiak > Izenpe > Kit Izenpe x.x.x.x desinstalatu (x.x.x.x instalatutako bertsioaren zenbakia izango da).

Windows 8an, joan Hasierako pantailara eta egin klik eskuineko botoiarekin. “Aplikazio guztiak” izena duen ikonoa agertuko zaizu. Saka ezazu eta bilatu IZENPEren aplikazioa > Kit Izenpe x.x.x.x desinstalatu (x.x.x.x instalatutako bertsioaren zenbakia izango da).

IZENPEren webgunean egiaztatu azken bertsioa dela.

Zer gerta daiteke, Kit_Izenpe User instalatzailea exekutatzean, ordenagailuan aurreko bertsio bat instalatuta badut?

Komeni da aurreko bertsioak ezabatzea beste bertsio bat instalatu aurretik. Dena dela, instalatzailea aurreko bertsioak automatikoki hautemateko eta ezabatzeko diseinatuta dago. Jarrai itzazu arreta handiz pantaila bidez jasoko dituzun argibideak.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskuliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Glosarioa

Autoritate ziurtagiri-emailea: sinadura elektronikoa erabilitako ziurtagiri elektronikoak idatzi eta ezeztatzeaz arduratzen den konfiantzazko entitatea da. Autoritate ziurtagiri-emaileak, bere aldetik edo erregistro-autoritate batek esku hartuta, ziurtagiri baten eskatzailearen nortasuna egiaztatzen du ziurtagiria igorri aurretik; edo, ezeztatze-baldintzekin luzatutako ziurtagirien kasuan, nortasun hori egiaztatu ondoren ziurtagirien ezeztatzea ezabatzen du.

Ziurtagiri digitala iraungitzea: ziurtagiri digitalak ziurtagirian bertan adierazten den indarraldia du. Normalean 2 urtekoa da, legez 5 urte arteko indarraldia baimendu arren. Ziurtagiriak iraungi ondoren, ezin izango dira sinadura elektronikoa eskatzen duten Administrazioak eskaintako zerbitzuak erabili, eta orduz geroztik egingo den edozein sinadura elektronikok ez du baliorik izango.

Ziurtagiri digitala: autoritate ziurtagiri-emaileak egin eta sinatutako informatika-euskarrian egindako agiria, bere jabearen nortasuna bermatzen duena.

Ziurtagiri onartua: Ziurtapen Zerbitzuen Egile batek emandako ziurtagiria. Ziurtapen Zerbitzuen Egile horrek Legean ezarritako baldintzak beteko ditu, eskatzaileen identitateari eta inguruko bestelako gaietara dagokienez, baita ematen dituzten ziurtapen-zerbitzuen fidagarritasunari eta bermeei dagokienez ere. Guztia, Sinadura Elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorrira.


Sinadura elektronikoa: datuen multzoa, modu elektronikoa, beste datu elektronikoei erantsiak edo funtzionalki haiei lotuak, hura biltzen duen agiriaren egilea edo egileak identifikatzeko baliabide gisa erabilita. 3 motatako sinadura elektronikoak daude: sinadura elektronikoa sinplea, aurreratua eta onartua.

Sinadura elektronikoa sinplea: beste datu batzuei erantsitako datu multzoa, forma elektronikoa dutenak.

Sinadura elektronikoa aurreratua: sinatzailea identifikatzen duen sinadura elektronikoa da, eta sinatutako datuen ostean egondako edozein aldaketa hauteman dezake. Sinadura sinatzailearekin eta adierazten dituen datuekin soil-soilik dago lotuta, eta sinatzaileak bakarrik kontrolatzen dituen bitartekoen bidez sortu da.

Sinadura elektronikoa onartua: sinadura elektronikoa onartua ziurtagiri onartu batean oinarritzen den eta sinadura sortzeko gailu seguru baten bidez sortu den sinadura elektronikoa aurreratua da. Eskuz egindako sinadurak paperean idatzitako datuekin duen balio bera izango du sinadura elektronikoa onartuak modu elektronikoa idatzitako datuekin.

Hash funtzioa: edozein tamainatako datu-multzo baten gainean egiten den eragiketa da. Horrenbestez, jatorrizkoaren tamaina edozein dela ere, lortutako emaitza neurri finkoko beste datu-multzo bat da. Hasierako datuei unibokoki lotuta egotearen propietatea du, hau da, hash funtzioa aplikatzean ezin dira emaitza bera sortuko duten bi mezu desberdin aurkitu.

	Dokumentuaren izenburua: Instalazioa eta Windowserako erabiltzaile-eskiliburua	2014/07/07 4.0.1.0 bertsioa
	Produktua: Izenpe Kita	

Hash edo hatz-marka: mezu bati hash funtzioa aplikatu ostean lortzen den tamaina finkoko emaitza, hasierako datuetara modu unibokoan lotuta egoteko propietatea betetzen duena.

Integritatea: integritatea da aldatu ez duten dokumentu edo fitxategi batek duen ezaugarria. Gainera, jatorrizko dokumentuan inolako manipulaziorik egin ez dela egiaztatzeko aukera ematen du.

Ziurtagiriak ezeztatzeke zerrendak edo ezeztatutako ziurtagirien zerrendak: ezeztatutako edo etendako ziurtagiriak (iraungitakoak ez) bakarrik agertzen diren zerrenda.

Onarpenak: dokumentu bat elektronikoki sinatzen duen igorleak ezin izango du ukatu jatorrizko mezua igorri zuela. Izan ere, mezu hori igorleari egotz dakiok, berak bakarrik ezagutzen duen eta babestera behartuta dagoen gako pribatuaren bitartez. Ukorik ezak, gainera, transakzio batean nork hartu zuen parte egiaztatzeke aukera ematen du.

Ukorik eza edo ukazintasuna kautotzearekin oso lotuta dagoen segurtasun-zerbitzua da, eta komunikazio batean aldean parte-hartzea frogatzeko aukera ematen du. Kautotzearekiko funtsezko diferentzia da aurrenekoa komunikazioa finkatzen duten aldean artean gertatzen dela eta uko ez egiteko zerbitzua, berriz, hirugarren baten aurrean gertatzen dela.

Ziurtapen Zerbitzuen Egilea edo ZZE: ziurtagiri elektronikoak jaulkitzen dituen edota sinadura elektronikoarekin lotutako bestelako zerbitzuak ematen dituen pertsona fisiko edo juridikoa da. Ikus autoritate ziurtagiri-emailea.

PIN: ziurtagirietan sartzea ahalbidetzen duten karaktereen sekuentzia. Identifikazio pertsonaleko zenbakia, zenbaitetan IPZ ere esaten zaiona.

PUK: PINa aldatzea edo desblokeatzea ahalbidetzen duten karaktereen sekuentzia. Desblokeatzeko gako pertsonala.

Berritzea: berritzea da beste ziurtagiri bat eskatzea indarrean dagoen baina iraungitzear dagoen ziurtagiri baten bitartez. Horrela, ziurtagiri bat iraungi aurretik hura berritzea eska daiteke eta, ondorioz, beste ziurtagiri baliagarria egin behar da.

Ezeztatzea: harpidedun batek eskatuta edo, gakoaren segurtasunean zalantza badago, autoritate ziurtagiri-emailearen ekimenagatik ziurtagiri digital bat behin betiko ezeztatzea. Ezeztatzea atzera ezineko egoera da. Etete-egoera baten ondoren edo eskatzeko baimena duten pertsonak hala nahi dutelako, ziurtagiri bat ezeztatzeke eska daiteke. Era berean, etendako ziurtagiri baten kasuan, gehieneko etete-epea igaro bada, ziurtagiria gaitu ez badute, behin betiko ezeztatua egotera pasako da. Ziurtatze-entitateak ziurtagiri bat ezeztatu edo eteten duenean, Ziurtagiri Ezeztatuen Zerrendetan (ZEE) adierazi beharko du gertakari hori ezagutarazteko. Zerrenda horiek publikoak dira eta beti eskuragarri egon behar dute.

Txartel adimenduna (SmartCard): neurri bateko logika programatua gauzatzea ahalbidetzen duen zirkuitu integratudun edozein txartel.